

zakete? Arlo horretan ere, erantzuna ezin da baikorra izan. «Euroarekin Euskadi garaile»? Bai zera! Europako Batasunean ez dago herri minorizatuentzako lekurik. Neoliberalismoak bere ideologia inposatzen duen bitartean, inperialismoaren gune den Europako Batasunean estatuek jarraituko dute agintzen, Alemania jaun eta jabe delarik, Frantziaren laguntzaz. Eta langileen eta herri gutxituen eskubi-deak zapalduak izango dira inolako kupida barik.

Beste arlo batzuk ikutu barik geratu dira. Baina esandakoarekin, nire uste apalean, badaukagu eztabaida egiteko gai nahikorik. Eta borroka ideologikoan erabat murgiltzeko motiborik. Gustatuko litzaidake baikorra izatea, baina... klase desbabestuen eta herri gutxituen ikuspuntutik ezinezkoa da, tamalez. ♪



M^a Carmen Gallastegi

Aldaketa historikoa

Moneta bakarraren sarrera, neurri batean gertakari historikoa, Bretton Woodsen sistemaren sorrera (1944) bezain garrantzitsua izango da nazioarteko moneta sistemaren historiarako. Horregatik, saihestu ezineko zereginak dira moneta bakarrak ekar ditzakeen ondorioak aztertzea, abantailei —baita eragozpenei ere— zehaztasunez begiratzeta, eta hain berrikuntza garrantzitsua gure onerako izan dadin lortzeko egin beharrekoaz gogoeta egitea.

Ikuspuntu ekonomikotik, oso erraz laburbildu daitezkeen eta sendotasun eta arrazionaltasun handia duten argudioetan oinarritua dago moneta bakarra.

Batetik, moneta europaren arteko truke neurri aldaezinak ezartzearen ondorioz, aldagai hauen ohiko gora-beherei datxekien ziurgabetasuna desagertuko da. Beraz, arrisku prima asoziatuak ezabatu egingo dira eta, honen ondorioz, in-

terez tasen diferentziala murriztu egingo da (murrizten ari da dagoeneko), eta hori bereziki nabarmena izango da moneta ahula ohi duten ekonomietan, hala nola Espainian.

Bigarrenik, erreserba moneta gisa eta ordainketen izendapenerako tresna gisa gero eta protagonismo handiagoa izango duen moneta izango dugu: euroa. Gaur egunean Europako Batasunaren komunitatez kanpoko merkataritza munduko guztiaren % 20koa baldin bada, aurreikuspenek diotenez, pisu hori handitu egingo da % 25 arte gutxi gorabehera. Epe ertainean moneta europarrak munduko erreserben % 40 hartzea espero da, dolarra neurri batean baztertzat mundu mailan dibisa gisa jokatu duen paperean. Denborarekin bigarren moneta garrantzitsuenaren lekuan finkatuko den moneta izango du ekonomia europarrak, eta horrek, zalantzarik gabe, lagundu egingo dio merkataritzaren hedapenari.

Euroaren sarreraren hirugarren abantaila handiak transakzioen kostuekin eta hauen murriztearekin du zerikusia. Dibisen aldatzeak sortzen dituen truke komisioak desagertu egingo dira. Eta modu berean desagertuko dira truke arriskuaren primak eta baita finantz erakundeek eta banku zentralak, komunitate barneko dibisetako operazioak administratzeko, aurre egin beharreko kostuak ere.

Azkenik, laugarren abantaila batek zerikusia du leku-ko moneta politika erabakitzeko eskema ezin hobea baliatze-ko aukerarekin.

Duela urte asko abiatutako prozesuari arrazionaltasuna ematen dioten funtsezko arazoak hauek izanik, ondoko baieztapen hau egin daiteke: «Moneta Batasunaren proiektuaren arrazionaltasuna, integrazio ekonomikoarekiko koherentziaren ondorio ez ezik, ordezeko hautabideen bideragarritasun zailaren ondorio ere bada».

Molde honetako aldaketa historiko batek, ezagun duenez, ondorio garrantzitsuak izango ditu mikroekonomian zein makroekonomian, eta ezinezkoa da, hain leku mugatuan, aldaketa hauek bere osoan aztertzea. Baina, gutxienez, bat etorri beharko genuke euroarekin eragile ekonomiko guztiak munta handiko aldaketa kulturalari egin beharko diogula aurre. Aldaketa honek behartu egin ditu

erakunde nagusiak, arlo publikoan batik bat, datorrenari buruzko sentsibilizatze kanpainak egitera eta erronkak ezustean harrapa ez gaitzan formazio egitasmoak martxan jartzera.

Arlo instituzionalak

Badira urte batzuk herrialdeen garapen ekonomikoaren eta beren erakundeen garapen eta diseinuaren arteko harremana ikertzen hasi zela ekonomian. Era honetako azterketak, esate baterako, Europako herrialde gehienetan aginte politikotik independente diren —independentzia maila herrialde batetik bestera aldatu egiten den arren— Banku Zentralak izatea eragin duten proposamenen oinarrian daude, eta baita herrialde europarretako lan merkatuen egitura erreforma batzuen oinarrian ere. Ikuspegi honetatik, honako galdera honek garrantzia duela uste dut: Zein eratako eredu instituzionalean sartuko gara? Eta zehaztasunez garatu ezingo badut ere, garrantzitsutzat ditudan bi alderdi aipatu nahi nituzke. Lehenengoa zergen arloari dagokio eta bigarrena erabakiak hartzeko prozesuari.

- Zergen arloari dagokionez, estatu kideen zerga politikak bateratu egin beharko lirakekeela diote ahots batzuek. Ganbio politika bakarra eta moneta politika bakarra izango badira, argudiatzen dute zenbaitek, ezinbestekoa izango da «zerga politika bakarra» ere.

Nire iritziz, gai honi dagokionez, aintzat hartu beharreko bi argudio mota daude eta ñabardura garantzitsu bat egin behar da.

Hasteko, ñabardura; bateratzeari buruz hitz egiten ari garenean zeharkako ezarpenaren bateratzeaz ari bagara, nabarmena da dagoeneko lanean ari direla norabide horretan. BEZren sarrera urrats garrantzitsua izan zen bateratze bidean, eta espero izatekoa da zeharkako ezarpenaren oraindik badiren diferentziak desagertzea, izan ere, gasolinaren gaineko zerga, esate baterako, estatu batetik bestera asko alda daitekeela pentsatzea ez baitirudi zentzuzkoa.

Honek ez du esan nahi, alabaina, gauza bera gertatuko denik zuzeneko ezarpenaren mailan. Eta ez da horrela izango bi arrazoiengatik:

a) moneta batasuna ez delako batasun sozial bat ezta moneta erreforma bat ere eta bidezkoa delako aldea egotea zuzeneko zergetan, estatu kideek eskaintzen dituzten pres-tazioen artean ere aldeak baldin badude .

b) baina, gainera, maniobrarako aukera bat utzi behar da, Europa osatzen duten herrialde, erregio eta nazionalitateek erreakzionatzeko modua izan dezaten shock idio-sinkratiko eta bereizien eraginez eta ezusteko gertakizunen eraginez bizi ditzaketen egoera ekonomiko desberdinen aurrean.

Shockei aurre egiteko segurtatze mekanismo komun eta orokorrik —hots, birbanatzea egiteko eta arriskuak banako eta erregio eragileen artean banatzeko mekanismoak— ez da Europan. Eta, gainera, erregioen arteko benetako bateratzea oraindik oso urruti dagoenez, uste dut zentzuzkoa dela aurkako shock propioei aurre egin ahal izateko manioobra aukera nahikoa izatea ahalbidetuko dien tresnaren bat izatea erregioek. Are gehiago, integrazioarekin erregioen espezializazioak gora egiteko aukera handia baita. Eta honek, aldi berean, ustekabeko eta izaera idio-sinkratikoko shockak gertatzeko aukera handia izango dela iradokitzen du, Batzordeak adierazitakoaren kontra. Zailtzarik gabe, bateratze arauak existitu beharko dira, baina koordinazioak eta bateratzeak ez dute, derrigor, zerga politiken uniformetasuna eskatuko.

• Arlo askotan Europako Erkidegoa estatu federala da dagoeneko. Eta hala da, 1986an Europako Akta Bakarra k gai batzuetan banako kideen beto eskubidea ezabatu zue-netik. Alabaina, ez erakundeak eta ez prozedurak ez dira behar beste zehaztu, zein botere zentralizatu beharko lira-tekeen eta zein ez erabakitzea ahabidetuko duen sistema argi bat izatea lortzeko.

Subsidiaritate printzipioak, Maastricht-eko Hitzarmen-ean sartua, ez dauka irakurketa bakarra. Izan ere, irakur-keta kontraesankorrek egiten zaizkio eta argi dagoen gauza bakarra, agian, subsidiaritate printzipioak estatu kideen hasierako subiranotasuna ezagutzen duela da, eta zentroa-ren «fidagarritasun» arazoak substantzialak izan daitezkeela nabarmentzen duela.

Bestela boterea Erkidegoko erakundeetan zentralizatzeko prozesu indiskriminatua izango litzatekeenaren alternatiba praktikoa gisa defenditu da printzipio hau. Printzipio honek, azken batean, boterearen banaketa deszentralizatua hobetsi behar dela aurreuposatzen du, zentralizatzearen aldeko argudio onak ez baldin badaude behintzat.

Gai honen inguruan, xehetasunetan sartu gabe, baieztapen hauek egin daitezkeela uste dut:

a) Botereak Erkidegoaren eta estatu kideen artean banatzeko gaur egungo mekanismoak argitasun gutxiak eta informalak dira.

b) Subsidiaritate nozioak ez ditu gauzak gehiegi argitzen: oso lausoa da eta irakurketa askotarako irekia, eta funtzioak banatzeko gidatzen baino printzipio politiko zabaltzen hartu behar da.

c) Mekanismoko koherentzia falta harrigarria eta kezagarria da, Erkidegoak federalismoranzko lehenengo pausoak eman baitzituen dagoeneko 1986an, beto eskubidea ezabatzean, beste estatu federal batzuen garapenean historikoki botere horiekin batera joan diren erakundeen jabe egin gabe artean.

Ondorio makroekonomikoak

Makroekonomiaren ikuspegitik euroaren sarreraren ondorioak garrantzitsuak dira testuinguru makroekonomiko egonkorra lortzea eta, batez ere, egonkortasun horri eustea, ekar dezakeelako. Sarri baieztatzen da egonkortasun makroekonomikoa hazkunde iraunkorrerako ezinbesteko baldintza dela eta, mundu guztia baieztapen honekin bat datorren arren, ez dirudi bere edukia aski gardena denik.

Komenigarria da, beraz, testuinguru makroekonomikoa egonkorra izateko ondoko bost baldintza hauek bete behar direla zehaztea:

- 1) Inflazioa baxua da eta aurretik jakiteko modukoa.
- 2) Egiazko interes tasak egokiak dira.
- 3) Zerga politika egonkorra eta iraunkorra da.
- 4) Truke tasa lehiakorra da eta aurretik jakiteko modukoa.

5) Kontu korrenteen balantza egingarritzat eta iraunkortzat jotzen da.

Erraza da ohartzea egonkortasunerako beharrezko gisa deskribatutako baldintzak Maastrichten onartu zirenen oso antzekoak direla. Beraz, hau kontuan hartuta, eta Europan ezarriko den moneta politikari buruz dakigunarekin batera, moneta bakararekin egonkortasunean irabazi egingo dugula ondorioztatu dezakegu. Inflazioa kontrolpean izango da, truke tasa mugiezina izango da ezinbestean, egiazko interes tasek —herrialde europarren zerga politike-tan desbideratzerik ez baldin bada— beste kideen maila antzekoetan iraungo dute, eta zerga politikak ortodoxoa izan beharko du, gastu eta «isun» handien arriskua jasan nahi ez baldin bada behintzat.

Argitzeko daukagu oraindik, berehala helduko den egonkortasun hori aski izango ote den egiazko bateratzea lortu ahal izateko, hots, Europako batez bestekoan dugun kokapen erlatiboa hobetzea ahalbidetuko duen gure Barne Produktu Gordin per capitaren hazkundera lortu ahal izateko. Moneta bakarrak bi aukera hauen aurrean jartzen gaitu:

a) Europako batez bestekoaren gaintetik haztea eta, beraz, aldagai nominalak kontrolatzen jarraituz gero, egiazko baldintzetan bateratu ahal izatea gure langabezia tasa jaitsiz.

b) Bateratasun irizpide nominalak bete arren ekoizpen gaitasunean inbertitzeko gai ez izatea eta, ondorioz, batez bestekoa baino gehiago ez haztea. Kasu honetan, ezinezkoa izango da egiazko bateratzea lortzea, eta berriro kohesio herrialdeen taldean zokoratuta geratuko gara.

A aukera nagusitzeko, hori komeni baitzaigu, zenbait baldintza betetzea behar dugu: batetik, sektore publikoak, finantz ortodoxiarekin batera, zientzia eta teknologiarako inbertsioetan ahalegin handiak egiteko gaitasuna izatea —alegia, hezkuntzan, azpiegituretan eta erakundeetan (sistemaren ekoizpen gaitasuna berritzea eta handitzea ahalbidetuko baitu honek)—, eta bestetik, interes tasen mumizketarako politika, behin finkatuz gero, sektore pribatuaren inbertsio produktiboa bultzatuko duen aldaketa

iraunkortzat hartzea enpresariet; ulertu beharrekoa da gure prezioak eta soldatak beren bilakaeran herrialde egonkorenetatik urruntzen baldin badira, truke tasa mugiezinen testuinguruan egotean, lehiakortasuna neurri benetan arriskutsuan galduko dela, eta aurrerantzean horri ezingo zaiola, inoiz ere, aurre egin iraganean hainbeste erabilitako debaluazio lehiakorrek baliatuz.

Nabarmena da, alternatiba posible guztien artean apustu egin nahi dugun estrategia eta aukera politikoak, Maastricht-eko baldintza nominalak betetzea eskatzeaz gain, aipatu ditudan baldintza hauek, eta beste batzuk, betetzeko gaitasuna izan dezagun ere eskatzen duela. Bide honetan baino ez dugu lortuko gure langabezia tasa murriztea eta aukera itxaropentsu bat eskaintzea hainbeste gazte trebatu, hezi eta gaituri, euren energia eta ezagutzak norbere buruaren alde eta gizartearen alde erabiltzeko modurik aurkitzen ez duten hainbeste gazteri. ¶

[Erredakzioan euskaratua]



Jenaro Garate

Euroa: egiaren Europaruntz

Orain eta hemen aztertuko dugun ikuspuntutik begiratu, euroa hau da: hamaika naziok gogoz onartzen eta janzten duten uztarri ekonomikoa. Orain artekoak era askotako aurretratuak izan dira. Euroa onartzea, berriz, notariara joan eta tratua herri guztien aurrean izenpetzea da. Txanpon ikusgarri bihurtuko den tratua, eten ezina, egunero gure eskuetan izango duguna. Gogozko lokarria da, baina hari luze eta sendoz elkar batzen gaituena. Galdera hau da: «Gu, euskaldunok, tratu honen alde edo kontra?». «Europaruntz nahi dugu ala Beheruntz?».